



RUTH-EN LIBURUA LLODIO-KO EUSKERAN

Bertsio informatiko honen egilea: Natxo Urkijo.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnonimRuthLlodio.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetze Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Mr. Antoine d'Abbadie.
Membre de l'Institut (Abadia).
Près de Hendaye.

Adisk. Ant. Abbadie-ri. D. I. G.-ek eta J. I. A.-ak 1873-en

Eskritura Santako Ruth-en Liburua, latiñeti
Llodio-ballerako euskerara D. Ignazio
Galindez abade Jaunak biurtua.
1872

Ruth-en liburua Llodio-ko Euskeran

Lenengo burua edo kapitulua

**Elimeletx bere emaste eta semiekas Moab-eko lur aldera doa.
Noemi ostera Ruth-egas Bethlehem-era biurtuten da.**

I1.º Jues baten denporan, Juesak agintariak sirela, jaso san munduan
gose-aldi bat. Eta juan san Bethlehemeko judatar gison bat pelegriñetara
Moab erreñurantzaz bere emaste eta bere seme bijekas.



I2. Senarra deituten san Elimeletx, eta bere emastia Noemi; eta euren seme biyek deituten siren, bata Mahalon, eta bestia Txelion, Efratheos-Juda-Bethlemekoak. Eta eldu sirianian Moabako paisera bertan gelditu sirian bisiten.

I3. Eta il san Elimeletx Noemiren senarra, eta Noemi Geratusan bere seme bijekas.

I4. Seinsuek eskondu sirian Moabitako andrakas, isenes bata Orpha, eta bestia Ruth: eta bisi sirian bertan amar urtian.

I5. Eta il sirian seme bijek, au da, Mahalon, eta Txelion; eta emastia gertu san umesurtz, bere senar, eta bere seme bijek-gandik.

I6. Eta jaki san bere errena bijekas, Moabako parajetik, ostera biur-tuteko bere erreñura, entzun ebalako, Jaunak biurtu situala begiak euren errirantxa eta emon utsela janaria.

I7. Urten eban bere errena biyekas, bere pelegrinañasiñoko lekutik, eta bidian egüanian, biurtuteko Juda bere parajera,

I8. Esan euxtien; juañ saitesa seuben ameen etxetara. Jaunak egindayela seubekas miserikordia, seubek eukidosuen moduan, illakas eta nigas.

I9. Emon deisuebela arkitutia deskansua, suertian tokauko jatxubesan senarren etxetan. Eta mun-egin situsan: Eurek altzaurik boza, asi sirian negarres.

I10. Eta esaten; seugas batera juango gara seure errira.

I11. Seintzubei erantzun eutzuen berak, biurtu sagides atzera neure alabak. Setako satose neugas? Daukadas menturas neure sabelian seme gejago itxaroteko nigandik senar geyago?

I12. Biurtu saitesa atzera, neure alabak, eta juañ saitesa; bada oso atzosartu nas, eta es nas gausa eskontzarako. Gaur gabian semiak artu eta egin albañeus bere.

I13. Itxaron gure bosuz asi eta eskonduteko denpora artiño, atzoturi parauko saré, eskonduek isin baño lenago: Es, nuere alabak; es ei-subegure orlango gausarik; segaitik se seuben atsakabiak geyetutendau neuria, eta Jaungoikoaren eskuba dago yagirik neure kontra.

I14. Eurak orduan altzaurik boza, asi sirian barriri negarres: Orphak mun-egiten eutzan bere amagiñerrari eta biurtu san: Baye Ruth alkartusan bere amagiñerragas.

I15. Nori Noemik esan eutzan; seure kuñetia biurtu da bere errira, eta bere Jaungoikoagana; yuañ sates bera-gas.

I16. Ruthek erantzun eutzan: Ez nei-su indarririk egin su desanparetako, eta juañ nadin; segaitik ze, su juaten saran lekura, neu bere juango-nas; eta seu bisikosaran lekuan, neu bisikonas, seure erriye isingo da neure erriye, eta seure Jaungoikoa isingo da neure Jaungoikoa.

I17. Enterretan saran lurrian, antxe bertan neu bere ilgonas, eta leku beratan isingo da neure sepultura: Au, eta baño geyago egindayela neugas Jaunak, eriyotzia espada, beste gausarik seugandik apartauten banau.

I18. Ikusirik bada Noemik ain sala andie Ruthen borondatia eta bera gas yuateko guraria; es geyago gurautzan kontraegin; es bere alegiñik, bere artekoetara yuateko.

I19. Eta urten euden batera; eta eldu sirian Bethlehamera: Eta sartu sirianeko ain laster urian, bertati sabaldu san famia jente gustien artian eta esaten euden enbrak: Au da arako Noemi:

I20. Seintzubei esan eutzan: Es neidesube deitu Noemi (au da, ederra) deitu neisube Mara, (au da garratza). Gustis-poderosoak garrastasunes betenabelako.

I21. Urten nendun beterik, eta bolbitan nas utzik: Segaitik bada deituten nasube Noemi, humildu nabenik Jaunak, eta aflijidu nabenik Gustis-poderosoak?

I22. Eldu san bada Noemi Ruth Moabitako bere errenagas pelegrinañasiñoko lurretik; eta biurtu san barriri Bethlehamera, garagarren egitaldia eldu san denborako.

II.en Kapitulu

Ruth-ek Booz-en soluan galburuak batzen ditu.

III. Eukan bada bere senar Elimeletx sanak senide bat, gison altsua, eta guztiz aberatsa, Booz deituten zana.

2. Eta esan eutsan Ruth Moabitarrak bere amagiñarrari: Aginduten banosu, juango naz solora, eta batuko dodaz egitarrien eskuetatik jausten



diresan galburuak, nongura aurkituten bot guresuen kariñua, neugas artu dajen errukia: Eta berak erantzun eutsan: zuaz, neure alabia.

II3. Juan zan bada, eta batuten zituzan galburuak egitarien ostetik: eta jazo zan a soloaren jauna Booz eretxon gizon Elimeletxenen senidia zala.

4. Eta ona-emen bera setorren Bethlehem-etik, eta esan eutsan, egiter egozani: Jauna izin dila zeubekaz, eta eurak erantzun eutsen: Jaunak bedeinkatu zaijela.

II5. Eta esan eutsan Booz-ek egitarien buruzay eguan gaztiari: Norna da neskatilla au?

6. Zeñeri erantzun eutsan: au da a Moabitarra; Moabako parajetik etorri zan Noemigas.

II7. Eta eskari-egin eban batuteko zelaien geratuten zirian galburuak egitarien oñarrak segitus, eta goiseti ordu-au-artiño dago soloan, eta mementu baten bere ezta biurtu bere etxera.

8. Eta diño Booz-ek Ruth-eri: Entzun-izu, alabia, ez zatez juan beste iñoen solora galburuak topetan, ez zaitetz apartau leku onetik: ezpada bazandu zaitetz neure otzaiñakaz.

II9. Eta egiter-diarduen lekuan segidu egizuz. Zegaiti ze emon deustiet ordenia nire morroiei iñok galaso ez zakidazula; eta egarririk badauka-zu bere, juan zaitte maletara eta neure mutillak edaten daben ureti edaizu.

10. Berak orduan, arpegiz lurreraño makurturik eta agur-umill egiñik, esan eutsan: Nondik niri au-ditxi-au, aurkidutia grazia zeure begietan, eta zeuk ni emakume arrots au ezagutera diñatzia?

II11. Zeiñeri ak erantzun eutsan: Esan deustiez zuk egin dozusan gauza gustiak zeure amagiñarragas, zeure senarra il zanik ona: eta itxi dozuzala zeure zenidiak eta jajo ziñian lurra, etorri zarijala len esagututen ez zendun errira.

12. Jaunak emon deizula sarie zeure egitadiakaz bardiñ, eta zeuk artu daizula mesede oso bat Israel-eko Jaun Jaungoikoagan dik, nogana etorri zara eta zeinzen egopean ipiñi zara.

II13. Berak esaten diño: Aurkitu dot grazia zeure begietan, neure jauna, konsolau nazulako eta berba-egin dozulako zeure mirabi-onen biotzara, bada ez naz aldentzeko zeure otzaiñen bategaz.

14. Eta esan eutsan Booz-ek: jateko ordua danian, etorri zaitetz oná, eta jan egizu ogie, eta busti-egizu zeure kopauba ospiñ edo biñagrian: Jarri zan bada egitarien aldera, eta artueban polenta-zatia beretzat, eta jan eban, eta bete ta ase zan, eta altzau eban sobrau zana.

15. Eta jaki zan andik batutera galburuak oi eban legez. Booz-ek osteria emon eutsen ordenia bere otzeiñai, esanik: bera egiter-gure izan arren zeuekaz, ez ezezue galaso;

16. Eta zeuen asauetati bere bota ejozue apropos galburu batzuek, eta itxi-eizuez bertan geldi lurrian, kujutu-itzan lotza-barik, eta iñok ez zematu dajola batuten dituzanian.

II17. Egon zan bada galburuak topetan soloan arratsalde-artian: eta batu zituzan galburuak makilla bategaz joaz eta astindurik, aurkitu eban garagar ephi baten neurria legez, au da, iru imillaun-legez.

18. Ak eruanaz, biurtu zan urira, eta erakusten eutsezan bere amagiñarrari: onesaz ganetik atera ta emon eutsezan janaritik, aseta-gero zeukesan sobrak.

II19. Eta esan eutsan bere amagiñarrak: Non bildu dozu gaur eta non bear-egin dosu? Bedeinkatua izin dila zeugas miserikordia euki dabe-na. Eta agertu eutsan nogaz biar-egin eban: eta esan eutsan gizonen izena, Booz deituten zala.

20. Zeñeri erantzun eutsan Noemi-k: Bedeinkatua izin dila bera Jaunagandik: bada biziekaz euki daben maitaeria euki dau bere illakaz: gejetu eutsan: geure senidia da gizona.

II21. Eta are esan eban Ruth-ek: Baita bere agindu eustan ni ainbeste denboragiño egitarietas batzanduteko, garagarren egiteraldia amaitu artian.

22. Zeñeri erantzun eutsan bere amagiñarrak: obeto da, neure alabia, joan zakidaz galburuak topetan bere otzeiñen artian, iñok galaso eztaizun beste iñoen soloan.

II23. Alkartu zan bada Booz-en otzeiñekaz; eta batu zituzan galburuak euren artian ainbeste denporan, troxetan garagarrik eta garija gorde ziran artiño.



III.en Kapitulua

Ruth-ek Booz-en oñen onduan lo-egiten dau: sei imillaun garagar beragandik sartuten dituz.

III1. Eta gero biurtu zanian bere amagiñarragana, entzun eban beraganik: Neure alabia, neuk topauko deutsut deskansua eta egingo dot ondo zariala.

2. Ori-Booz-ori, zeñen neskatillagaz sagoz batzandurik soloan, da gure zenidia, eta gau onetan garbituten dau garagarra bere larriñian.

3. Garbidu zaitetz bada, eta usaindu zaitte, eta imiñi egizuz zeure jas-teko oneenak, eta joan zaitetz larriñera. Ikusi ez zaizala gizon orrek jan eta edan amaitu ez dajan artian.

III4. Eta lotara joan zediñian, ondo kontu-egizu lo-egiten daben lekua: eta joango zara, ta altzaukozu oñen aldetik estaltzen daben kapia, eta bertan itxungo zara, eta engo zara: eta berak esango deutsu zer egin biar dozun.

5. Berak eranzun eban: Aginduten nozun guztia egingot.

6. Eta joan zan larriñera, eta egin eban amagiñarrak agindu eutsan gustia.

7. Eta Booz jan eta edanda eta alegriagoturik, eta joanik lotara aspelmeta baten ondora, eldu zan Ruth isillik, eta altzaurik kapia oñen aldetik, itxun zan bertan.

8. Eta on-emen arako gaberdian izurtu zan gizona ikaraturik eta itzeldurik: eta ikusi eban andra bat etxinik bere oñetara.

III9. Eta esan eutson: Nor zara? Eta berak erantzun eban: Neu naz Ruth zeure mirabia, zabaldu egizu zeure kapia zeure menpeko onen gañian, neure zenidia zarialako.

10. Eta berak esan eutsan: Bedeinkatia izan zaitetz, alabia, Jaunagaitik, zegaiti ze oinzungo ontasunagaz lenengoa goitu dozu: bada etzara gaste probien edo aberatsen ondoren ibili.

11. Ez zaitetz ba bildurto, zegaiti ze nik egingo dot zeugaz esaten deustazun gustia. Zegaiti ze neure urien atez-barrure bizi dan erri gustiek badaki, zu zariala birtutezko andria.

12. Ez dot uketan ni nazala zeure zenidia; baie dago beste bat neu baiño urkoago dana.

13. Deskansau egizu gau onetan: eta eguna argidutian gure badau geratu zeugaz urkotasun-eskubidiagatik, izin dila ordu onian: baie berak gura ez padau, neuk duda-barik artuko zaitudaz; bizi da Jauna. Loegizu gosera-arté.

14. Lo-egin eban bada bere oñetan gauba pasau zan artiño. Eta jagi zan gizonak alkar esagutu baño lenago, eta esan eutsan Booz-ek: Aitu-izu, iñok jakin ez dajela zu ona etorri zariala.

15. Eta geitu eutsan: sabaldu egizu soñian dakasun oyala, eta esku biekaz ondo oratu. Berak sabaldu eta lusatu ezkerro, neurri zituan sei imillaun garagar eta imiñi zitusan bere gañian: zeñek eruanaz sartu zan urian.

16. Eta biurtu zan bere amagiñarrabana. Zeñek itandu eutsan: Zer da egin dozuna, alabia? Eta kontau eutsan beragaz gizonak egin eban gustia.

III17. Eta esan eban: on-emen emon deustezan garagar sei imillaun; eta esan deust: Eztot gure biurtu zaitetzala zeure amagiñarregana esku utsekaz.

18. Eta Noemik esan eutsan: Itxoisu, alabia, ikusi daigun artian ze amaja dau gaur onek. Zegaiti ze gizon ori ez da geldiuko, esan dabena oso-bete artiño.

IV.en Kapitulua

Booz, beste urkoagoak zenitasuna lagatzen deusala, eskonduten da Ruth-egaz, eta dauko beragandik Obed Dabid-en aitua.

IV1. Igo zan bada Booz atera, eta jarri zan bertan. Eta ikusirik pase-tan zenidia, zeñen gañian len berba-egin dogu, deitutun deusala bere izenetik, esan eutsan: Eldu zatez ona denpora apur baten, eta jarri zaitte emen. Eldu zen a eta jarri zen.

2. Eta arturik Booz-ek amar gizon uriko zarrenak, esan eutsan: Jarri zaitetze emen.



IV3. Eta bein jarri zirian ezker, esan eutsan bere zenidiari: Noemi Moaba-ko parajetik etorri danak dauko salduteko Elimeletx geure anajen lur-parte bat;

4. Eta nai izan dot zuk au jakin dauzula, eta zeuri esatia emen-jarri-rik dagosan gustien aurrian eta neure erriko antxiñako gizonen aurrian. Nai bozu zeuretzat geratu zenidetasunaren eskubidea, erosi-egizu eta gel-ditu zatez beragaz; ordia orretan atsegin ezpozu, ziara adiraso naizu au berau jakiteko zer egin biar dodan; Zegaiti ze ez dago beste zeniderik ezpazara zu lenengoa zariana, eta neu bigarren nazana. Ak ba eranzun eban: Neuk erosiket soloa.

IV5. Eta Booz-ek esan eutsan: Noemien soloa erosten dozun aini laster ezkondu biozu Ruth Moabitarragaz, zeñ difuntuen emazia zan; pistu daizun zeure zenidien izena bere zenipartian.

6. Berak eranzu-eban: lagatzen dot zeneitasunen eskubidia, zegaiti ze neure familien belauna ez dot amatau biar. Usau-egisu zuk neure eskue, zeñ nik eztodala pozik bertatik aitortzen dot.

7. Izin zan Israel-en oitura antxiñako bat aidien artean, bai euren arteko batek besteganatzen ebanian bere eskubidia, legez emoneria sendortzeko, kenduten eban arek bere zapatia, eta emoten eutsan bere lagunurkoari. Au iziten zan Israel-en emonkisunaren testimonioa.

8. Esan eutsan bada Booz-ek bere zenidiari. Kendu egizu zapatia edo oñetakua. Eta berak puntuan kendu eban bere oñetik.

IV9. Eta ak (Booz-ek) esan eutsan agurai eta erriko gustiai: Zeuek zare gaur testiguak, zelan neuganutzen ditudan Elimeletx-en Txelion-en eta Mahalon-en ondasunak, emoten deutesala Noemi-k;

10. Eta artuten dodala emastetzat Ruth Moabitarra, Mahalon-en emastia izin zana, altzetako bere senar-sanaren isena bere ondorenian, galdu ezteiten bere izena familiatik, anarrabatik, eta bere erritik. Zeuek, diñotsuet, zare jasoera onen testiguak.

IV11. Eranzun eben ate-alboan eguan erri gustiak eta aguriak: Gu gara testigu: Jaunak egin dajela zeure etxian sartuten dan emakume one-gaz Ratxel eta Lia-gaz egin ebana, zeintzuek edertu euden Israel-eko etxia, izitiko birtutezko ispillu bat Efrata-an eta eukiteko izen entzute andikoa Bethlehem-enen.

12. Eta zeure etxia izin dila Phares-en etxia legez, Tamar-ek Juda-entzatz seiñ-egin ebana, Jaunak neskatilla onengandik eman daizun azitik.

IV13. Artu eban bada Booz-ek Ruth, eta eskondu zen beragaz: eta bereganatu zan, eta emon eutsan Jaunak sena-sortu eta argitaratzia.

14. Eta esan eutsien emakumak Noemi-ri: Bedeinkatua izin dila Jauna, eruan ez dabalako ondorenbagarik zeure familie geratzia, bere izena entzun daitian Israel-en,

15. Eta euki deizun nok konsolau daijen, zeure arima eta mantenui dajen zure sartzarua. Zegaiti ze jayo da zeure erreñatik, zeñek ametan zaitu; eta zeuretzat askoz obeto da, zaspi seme baleuzkez baño.

16. Eta arturik Noemi-k semia, imiñi eban bere altzuan, eta egiten eban beragaz aña eta zenzañaren beargaja.

IV17. Auzoko emakumeak ostera beragaz batera pozturik, eta esanik; Jajo jako Noemi-ri seme bat; deitu eutzien Obed; au da Isai-en guraso Dabid-en aitia.

18. Onek direz Phares-en gizaldiak: Phares-ek sortu eban Esron.

IV19. Esron-ek sortu eban Aram, Aramak sortu eban Aminadab,

20. Aminadab-ek sortu eban Nahason, Nahason-ek sortu eban Salmon

21. Salmon-ek sortu eban Booz, Booz-ek sortu eban Isai, Isai-k sortu eban Dabid.

D.I.G.